

KONTROL MOZIOA

ESKARIPEKO GELDIALDIEN SISTEMA ZEHAZTEKO PROBA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko uztaileko Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 26an, Mugikortasunerako zinegotzi ordezkariak eskaripeko geldialdien sistemaren proba aurkeztu zuen. Honako sistema hau Europa mailan zabaltzen ari den indarkeria matxistaren kontrako neurria da. Bakarrik bidaiatzen duten emakumeen segurtasunari erantzun nahi zaio eta bide batez, hiriko baliabideen bitartez segurtasuna hobetu eta pertsonen mugikortasunerako erraztasunak eman.

Udal batzordeetan, administrazio kontseiluetan edo eta kontseilu sektorialetan proba honen inguruan informazioa eskatu eta proposamenak egin diren lehen aldia ez da, eta ez dugu uste proba martxan jarri aurretik mahaigaineratu diren zalantzak edo eta proposamenak aztertu eta jaso egin direnik.

Alde batetik, eskaripeko geldialdien sistema eraginkorra bilatzeko, proba gautxoria den linea bakarrean jartzearekin ez dugu uste beharrezkoak ditugun ondorioak lortu ahal ditugunik. Bestalde, proba ezagutarazteko erabili den komunikazioa hobetu beharra dago. Indarkeriaren kontrako neurri gisa abiatzen da eskaripeko geldialdien sistema eta garrantzitsua iruditzen zaigu, guztion ardurapeko gaia denaren aurrean, Udaleko atal guztien aldetik zero tolerantzia agertzea eta indarkeriaren kontrako kanpainak indartzea.

Badakigu eskaripeko geldialdien sistemaren bitartez bakarrik ez diogula indarkeria matxistaren azaro estrukturalari aurre egingo, baina bai gerta daitezkeen zenbait eraso saihestu eta hiriko emakumeei segurtasun handiagoa eskaini.

Horiek horrela, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaripeko geldialdien sistema indarkeria matxistaren kontrako neurri gisa aurkez dezala eta prestatzen diren esku orri eta informazio kanaletan indarkeriaren kontrako irudia eta mezu nagusia jasotzeko.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari iraila bitartean, eskaripeko geldialdien sistemarako abian jarritako proba, hiriko linea nagusietara (hegoaldea, mendebaldea eta ekialdea) zabaltzeko.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, iraila bitartean, eskaripeko geldialdien proba gautxorietan bakarrik ez, gaueko 22.00etatik aurrera martxan jartzeko.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaripeko geldialdien sistema, indarkeria matxistaren kontrako neurria den aldetik, Berdintasun Bulegoarekin, DBus-eko Administrazio Kontseiluarekin eta Donostiako Berdintasunerako kontseilu sektorialarekin parteka dezala elkarlanean aberasteko.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia